

B

BARREN

Misioa eta ilusioa Kongon

M^a Eugenia Kortaberria
eta Tomas Madinabeitiaren
proiektuak



Chevrolet Lacetti.

Jendeak badaki abagune onak baliatzen.



LACETTI New Yorken, 25 orduko itzalaldi hura gertatu eta bederatzi hilabetera, milaka haur jaio omen ziren. Jendeak badaki abagune onak baliatzen. Orain, Chevrolet Lacetti bat duzu aukeran: ABS, EBD, 4 airbag, atzerako ispiu termiko-elektrokoak, lotxe sistema zentralizatua, urubiko kontrolagailua, MP3a eta COa dituen irratia 9.500€-ren truke.

**Chevrolet Lacetti
9.500€-ren truke**



Giauto Elgoibar - Olaso Kalea, 25 - Salmentak: 902 345 123 - Tailerra: 902 345 125 - E-mail: clientes@giauto.es - www.giauto.es
Giauto Olaberria - Karobi Ind. - Salmentak: 902 345 225 - Tailerra: 902 345 235 - E-mail: clientes@giauto.es - www.giauto.es

Erantzukizun amaierari buruzko klausula, Penintsularako eta Balearenarako PSP gomendatua (Lacetti, 1.4 16v modeloaren; BEZ, eta matrikulazio, gimaiio eta sustapen zerga bime). Hilaen amaiera arte balioko du. Ez da metagaria beste sustapen batzuekin. Kontsumo mistoa: 5,7-8,8 l/km. CO2 emisioa: 146-210 g/km.



Aue

Gabonetako eskaintza bereziak: kojina, koltzak, plaid-ak, gortinak,...
Zatoz eta galdetu konpromisorik gabe.

Santa Ana, 8
Tel./Fax: 943 74 35 09
20870 ELGOIBAR

Totemo Oishii

Japon munduko bigarren potentzia ekonomikoa da, baina menu batek bost euro balio ditu. Japoniarrak beraien artean oso errespetuosoak dira, baina askok zerbait hartzera joateko konpainia ordaindu egiten dute. Japoniarrak espiritualak eta kontsumitzaile haundiak dira. Japoniarrak umilak eta eskuzabalak dira.

Turismoa egitearen helburua argi eta garbi herri ezezagun bat ezagutzea da. Baina turismoa egiteko modu asko eta oso ezberdinak daude. Turista hitza buruan irudikatzen dugun lehen momentuan sandaliak eta kaltzetin zuriak ikusten ditugu, esku batean argazki kamera eta bestean mapa bat daukaten arrosa koloreko *giriak*. Horiek kopetan *turista* hitza grabatuta daukate, eta ehunka kilometrora igarri daitezke. Gainera, askotan talde handietan mugitzen dira, aterki naranja batekin hainbat hizkuntza hitzegiten duten pertsona batek gidatuta.

Beraientzako prestatuta dauden autobusetan mugitzea eta ezagutzen ez duten artisten eskulturei argazkiak ateratzea aukeratzen dute askok. Baina horrela herri bat barnetik ezagutzen al da? Leku ezagunak argazkiz errejistratzea ote da leku bat ezagutzea?

Aukeran, nik beintzat nahiago dut bertako bizilagun batekin hiri haundiko kale estuetan sartu eta beraiek eguneroko bisitatzen duten taberna txiki batean garagardo bat

hartzea. Etxeko sukaldean egiten duten bazkaria jan eta ohiturak ikusi eta ikastea. Keinuz komunikatu eta eskerrak ematen ikastea.

Japonetik leku eta edifizio *enblematikoak* ikusi gabe bueltatu naiz, baina Tex-en amaren sushia probatu ahal izan dut. Zor-
teduna naiz.

Arigato gozaimasu!

Ander Mujika



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....
"Japonetik leku eta edifizio *enblematikoak* ikusi gabe bueltatu naiz,
baina Tex-en amaren sushia probatu ahal izan dut"

**BETE DUZU ALBISTEAK
E-POSTAZ
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO
BIZPAHIRU
ALBISTE JASOKO
DITUZU!**

www.elgoiBARREN.net

Albisteak ePostaz jasotzeko

Izena

ePosta

☒ Harpidetu
☐ Harpidetza eten

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



AFRIKAN LAGUNTZEN

MARIA EUGENIA KORTABERRIA
ETA TOMAS MADINABEITIA KONGON



Maria Eugenia Kortaberria elgoibatarra da eta Kongoko Katanga herrian egon da joan den udan “Ukituta” bueltatu da herrira, eta BARRENein batu da han bizi izandakoa gogoratu eta hemendik laguntza bideratzeko. Baina ez da bakarrik joan: Tomas Madinabeitia eduki du bidaia-lagun, Eskoriatzakoa izatez, baina Benantzio Otaegi Elgoibarko parrokoaren laguntzaile. Besteak beste, aitzurrak batzeko kanpainaren inguruan jardun dugu eurekin. Bideoak eta argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net

Edurne Burgaña

Maria Eugenia Kortaberria elgoibatarra Kongoko Katanga herrian egon da misio talde batekin joan den udan, uztail eta abuztuan: Tomas Madinabeitia da talde horretako buru; Eskoriatzako Mendieta auzokoa da izatez, baina Benantzio Otaegiren laguntzailea da Elgoibarren. Hala ere, aspalditik ezagutzen dute elkar Maria Eugenia eta Tomasek. Urte asko daramatza Tomasek misioetan lanean, eta aurten lehenengo bider animatu da Maria Eugenia. “Ukituta” bueltatu da bidaiatik. “Ez da gauza bera hango egoera telebistan ikustea, ala zuk zeuk bizi izatea”, azaldu du.

Elgoibartarraren esanetan, “misioa dute Tomasek-eta Kongon, Kansanian batez ere. Bilboko apaiz batek hasi zuen mugimendua eta hura hil zenean, hauek hartu zuten testigua. Herrietara ura ekartzen ari dira, hori da orain martxan duten proiektue-

tako bat. Ni aurten egon naiz han, eta ura eroateko kanalen neurketak egiten lagundu dut. Hori da egin dudana, eta Kongon dagoen egoera ikusi. Inpresionatu egin nau: zelako gabeziak dituzten konturatzen zara, eta falta zaien guztiarekin pozik bizi direla ikusi dut”.

**“Zelako
gabeziak dituzten
konturatzen zara,
eta pozik bizi dira”**

Misiolariek sekulako garrantzia dutela ere nabarmendu du Maria Eugeniak: “Euren bizitza zelakoa den ikusi nuen udan, eta ospitalearen funtzionamendua, eta misiola-

ri horiek sekulako garrantzia dute, behar handia egiten dute Kongon. Egia esan, euren gaitik izan ez balitz, Kongon egun dagoen egoera baino askoz txarragoa egongo litzateke. Izan ere, han ez daukate ezer ere, Gobernuak ez du ezer ematen. Han egiten dituzten eskola eta gainerako guztiak, misiolariak egindako lanari esker dira”.

Tomas Madinabeitia orain dela 30 urte-tik ezagutzen du Maria Eugeniak, eta haren bitartez sortu zitzaion Kongon laguntzeko aukera: “Orain Elgoibarren dago apaiz, baina Antzuolan apaiz egon zenetik ezagutzen dut. Gero misioetan egon zen, eta bueltan Elgoibar inguruko herrietan egon da apaiz, baina Elgoibarren amaitu du. Laguna dut, eta Kongora joateko asmoa zuela esan zidanean, nik ere joateko gogoia nuela esan nion; animatuz gero eurekin joatea proposatu zidan, eta joan egin nintzen. Aurten herritik neu bakarrik joan naiz, Tomas eta

Antzuolako beste mutil batekin. Tomas urtero joaten da, eta aurten hogeia egun inguru eman ditugu”.

Pobrezia handia dago Kongon, baina miseriarik ez. “Oso gutxi dute, baina oso pozik bizi dira; alde horretatik inbidia ematen didate. Guk hemen, denetik daukagu, eta ez dakigu ez gozatzeko, ezta aprobetxatzeko ere. Eta ez gara eurak bezain alaiak”.

Bost urte kanpoan

Tomas Madinabeitia 1981ean joan zen Kongora eta bost urte pasa zituen han. Harrezkero, sarritan joan izan da hango proiektuari jarraipena ematera. “Kontaktua beti mantendu izan dugu. Azken hiru urteetan nire esku geratu ziren 2.000 umeren eskola ordainketak eta eskolaratzea, eta ura auzoetara eta herrietara eramatea, beraz, urtero joaten gara”, esan du Tomasek.

Udan joaten dira normalean, Kongora joateko urtaro egokiena horixe delako: “Oraindik lehor egiten du, eta gure laneta-

rako onena orduantxe da”, argitu du misiolariak.

“Jendea prest dago laguntzeko, baina askotan bidea eskaini behar zaio”

Eskolak egitearen proiektua da mar txan dutenetako bat: “Eskola itxiak eginda ditugu gehientsuenean, nahiz eta batzuk konpondu beharra eduki: hemendik eskola materiala eta maisuen soldatak bideratzen ditugu. Horrentzako aurrekontua altu samarra ateratzen da: 80.000 euro inguru urtero. Horietatik 40.000 inguru soldata eta umeen materialarentzat izaten da, eta gainerakoa konponketak egiteko. Hemengo laguntasunarekin eta hango borondate onarekin gauzak aurrera eramaten ari gara”, nabarmendu du apaizak.

Euskal Herriko elizbarrutien misioen barruan dago kokatuta Katanga herrikoa. “Era askotako mojen komunitateak daude han: kaputxinak, dominikanak, eta hiri handietan dauden arren, oihanean ere bizi dira, eta euren babesera joaten gara. Ondo zaintzen gaituzte alde batetik; eta bestetik, hango jendearekin hartu eman zuzen-zuzena daukagu”, azaldu du Tomasek.

Elgoibarko makinak

Baina Katangako herritarrei laguntzeko ez dago Afrikara arteko bidaia egin beharrik, herritik bertatik ere badago laguntzeko aukera: “Elgoibartik artezteko hiru makina bidali ditugu eta beste bost makina ere bidaliko ditugu orain. Makina horiek ordainduta doaz, eta batzuk esku zabalez emandakoak ere bai. Eta makinentzako piezak ere eman dizkigute. Jendea prest dago laguntzeko, baina askotan bidea eskaini behar zaio. Bide zuzen bat eta egokia jartzen duzunean, denak prest egoten dira”.

Maria Eugenia Kortaberria elgoibartarra Katanga herrian.



GERRA

Zoritxarrez, azkenaldian Kongo askotan agertzen da albigestegietan hango gerragatik. Tomasek han bizi duten egoera azaldu digu pixka bat: “Kongo Espainia baino bost aldiz handiagoa da eta une honetan gertatzen ari den gerra Katangatik 1.000 kilometro ingurura dago, Rwanda inguruan, Laku Handien inguruan. Ez da oraingo kontua, aspalditik datorren gerra da: Rwandako gerra egon zenean asko bidali zituzten euren herrietatik, gehientsuenak hutuak. Dagoneko bost milioi hutu desagertu dira.

Bestalde, Kongoko lurralde hori oso aberatsa da: koltan izeneko minerala dute eta gerra mantentzen ari dira mineralagatik. Azken batean, minerala ateratzen dute, Rwandara bidali, eta handik Europara, Txinara eta Ameriketara bidaltzen dute. Gu ari gara gerra mantentzen”.

“Gainera, lurraldea oso aberatsa denez, Rwandak bereztat hartu nahi du, eta horrek sortzen du borroka. Azken batean, gerra ekonomikoa da, tutsi eta hutuen arteko gerra, eta gu suspertzen ari garena”, nabarmendu du Tomasek.

“Katanga bera ere oso aberatsa da mineral aldetik, eta esplotazioa asko indartu da. Kanpoko jendeak esplotatzen du, eta hango jendea kondizio txarretan ari da lanean. Mineral guztiak harrapatzen ari dira: uzten ari dira. Katanga nahiko baketsua da eta aurrerapauso batzuk ere ematen ari dira, baina oraindik asko dago egiteko”, gaineratu du apaizak.



Ezkerrean, Kongoko ume batzuk. Eskuman, Maria Eugenia Kongon ura herrietara bideratzeko lanetan laguntzen.

AITZURREN KANPAINA

Aitzurrak batzeko kanpaina bat ere badute eskuartean: “Aitzurren kanpaina 1987an hasi genuen. Eskola umeek erabiltzen zituzten eta, beraz, gurasoak batere gabe geratzen ziren etxean. Guk Euskal Herrian hainbeste aitzur edukita, bidaltzen hasi ginen, 50.000 bidali ditugu eta hurrengo hilean 5.000 gehiago bidaliko ditugu”, azaldu du Tomasek.

Guretzako aitzurra ez da beste munduko ezer, baina Kongoko biztanleentzako garrantzi itzela dauka: “Aitzurra traktorea bezalakoa da. Gizon edo emakume baten eskuan janaria, diru pixka bat atera, garbiketa, bideak konpontzea eta denetik egiteko balio du. Adibidez, ume horiek uda parte-an taldeka aitzurrarekin bideak konpontzen ibiltzen dira eta trukean eskola materiala hartzen dute”.

“Makinak gasoliorik gabe, hondatuta... denetarik ikusten dira izkinetan ezin ibilita. Aitzurrarekin, baina, bizimodua ateratzen dute. Instrumentu gogorra da, baina erabiltzeko erraza”.

Bidaltzen duten aitzur bakoitza sei euro kostatzen zaie: “Zenbat aitzur bidali nahi dituzu?”, gal-detzen dute. Elizbarrutietako Misioen kontuan dirua sartuta lagun dezakezu.

Aitzurrak bidaltzeko

Sartu dirua ondorengo kontuetan:

- Kutxa: 2101 0381 09 0001869809
- Euskadiko Kutxa: 3035 0060 41 06000 704166
- “Kongo” hitza idatzi behar da.
- Errentaren aitorpena egiteko agiria nahi izanez gero helbidea eta NAN zenbakia jarri behar dira.

Eskerrik asko! Twasanta lwine!




Tomas Madinabeitia Eskoriatzako apaiza Kongon hango umeak atzetik dituela.



Errosario kaletik San Bartolome kalera doan pasabideko lurra arriskutsu dago:

“Harri mota diferenteak daude San Bartolome eta Errosario kalea lotzen dituen zeharkalean, eta oso arriskutsu dago. Harriak gastatu daude leku batzuetan, eta euria egiten duenean labaintzeko arrisku handia egoten da. Herriko beste kale eta inguru askotan gauza bera gertatzen da, eta, nire ustez, Udalak zeozer egin beharko luke, jende nagusia askotan erori egiten da-eta”.



Hormetako kartelak ekitaldiak izan aurretik kentzen dituzte: “Azkenaldian goizeko 6:00etan kentzen dituzte kartelak herriko hormetatik. Kalean inor ez dagoen momentua aprobetxatzen dute kartelak kentzeko, eta gainera, askotan ekitaldiak edo konbokatoriak izan aurretik kentzen dituzte. Ez dugu ulertzen horren arrazoia, izan ere, kartelak jendea ohartarazteko jartzen dira, eta askotan ez da aukerarik egoten”.



Atxutxiamalka txalotu nahi dugu jostailu erakusketa antolatzeagatik:

“Aurten ere oso gustura hartu dugu parte Atxutxiamalkak antolatutako jostailu erakusketan. Polita izan da, dibertigarria eta gauza interesgarriak ikasi ditugu”.



Txalo bero bat Danobat Taldeari: “Danobat Taldeak lortu duen eskaerak txalo handi bat merezi du. Krisi garaian gaude, eta gure herriaren ize-na modu positiboan atera da komunikabide guztietan. Ia krisiak eragin txikia izaten duen gu-rean eta azkar pasatzen den”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943-74 41 12

NORA

INPLANTEAK
PROTESIA
HORTZ ESTETIKA
ENDODONTZIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA
ORTODONTZIA
P.A.D.I.-a

- Lehenengo errebisioa eta aurrekontua dohain.
- Sei hilabetetara FINANTZIAZIOA
(interesik gabe).

HORTZ KLINIKA

Odontologoa:
Nora Bastida Etxeberria
Koleg. zbkia: 736

Azpilgoeta kalea 5, behea
20850 MENDARO
Tel: 943 03 35 75



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Txoria nuen maite

lñaxio, hegorik gabeko txoria ez dela aske zioen Laboak, eta euskal abertzale bat gutxiago duen herria ere ez dago aske, hegorik gabeko txoria bailtzan. Hego-rik gabe txoriak ezin hegan egin. Euskal-dunik gabe ba al da Euskal Herririk?

Zure semearen begietara begiratzan dut eta erantzun bat aurkitu ezinean dabilen seme baten mina baino ez dut ikusten, bihotza tirokatu dioten seme baten nahigabea baino ez dut ikusten. Galderez ez-tandaka duela barrua, erantzunik gabeko galderez. Abertzale eta seme baten frustrazioa dariola.

Asko hitz egin dit zutaz. Guztiaren gaitetik pertsona ona zinela. Langile amorratua. 14 urtetatik lanean jo ta ke. Baserritar leial moduan beti dago zerbait egiteko, ez-ta? Baserritar petoa zinen. Euskalduna. Abertzalea. Biziki maite zenuen Euskal Herria. Euskara zegoen beti zure ezpainen-tan. Izarraitzen magalean jaiotako euskal baserritar petoa. Guzti hori ez da aski izan Euskal Herrian aske hegan egiteko.

Nik ere Euskal Herrian aske hegan egin nahi izan dut beti, zuk bezala lñaxio eta zure semeak bezala, euskal abertzale guztiek bezala. Baina orain gure hegoak bi tiro gupidagabek zauritu dituzte. Nola sendatu zauriak? Zurek ez dute sendabiderik. Zuri hegan egiteko eskubidea lapurtu dizute errotik. Guri, berriz, hegaldiaz gozatzeko eskubidea.

Muxu bat, lñaxio. Erloko postontzian utziko dut gutuna, han ibiliko baitzara zure etxekoei so. Hantxe utziko dut bai, Izarrai-

tzen. Loiolako euskal baserritar peto batek hori eta gehiago merezi duelako.

Noizbait arte, lñaxio.

S.G. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



ZUZENDARIA: Ainhoa Andonegi KAZETARIAK: Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA: Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA: Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA: Jaione Unanue KOLABORATZAILAK: Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA: Gertu Koop. E. TIRADA: 4.750 ale. LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Eva
Garcia

Gogo-
an al daukazu
oraindik, atal ho-
netan idatzitako
lehenengo testua?

Zirkuluei buruz hitzegi

genuen, bizitzaren prozezu eta

epealdiak ikusteko modu bat zirela esan zenidan. Urtea bu-
katzeko ari da, eta horrezkero 2008a izan denari agur egiteko ga-
raia da, baina oraindik ezin izan ditut zirkulu madarikatu horiek buru-
tik kendu. Betidanik, zirkuluak babes eta boterearen sinbolotzat hartu
dituzte kulturek. Zeozer magiko eta indartsua dute: harrapatzen eta lo-
tzen gaituzte, betirako iraunez.

Urte honetan hainbat zirkulu egon dira guztiontzat, bestelako ta-
mainuekin, erronka eta helburu ezezagunekin, erantzukizun berriekin,
eta, era batean edo bestean, gauza onekin eta txarrekin egin dugu to-
po. Gure egunerotasunean ere berbera aurkitzen dugu: egunak ekar-
tzen dituen nahasteak eta gaueko lasaitasunak bizitzako zirkulua sor-
tzen dute.

“Zirkuluak ixtea oso txukuna dela iruditzen zait”

Nik ere, ezer jakin gabe, hasi nintzen leku berean bukatzen dut
2008a, eta lehenengo testua idatzi nuen toki berberetik idazten dut az-
kenengo testu hau. Nik ere zirkulu erraldoi bat amaitu dut, berriro ha-
sierara ekarri didan bidaia izugarri eta zirkular batekin. Beharbada, no-
raezean edo nora joan jakinda, inoiz ez gara betirako joaten edo etor-
tzen. Beharbada biraka gabilta soilik. Zirkuluak ixtea oso txukuna de-
la iruditzen zait, natura maila bikaina dela onartzea delako. Ez dago
hasierarik edo buakaerarik. Horregatik, aurtan idazten dugun azken
artikulu honetan literatur zirkulu txiki hau ixteko baimena ematen dizut
zuri. Eta zuri munduaren beste aldean hasi duzuna ere ondo bukatzea
opa dizut. Datorren urtera arte!



Miriam
Garcia

Bai, gogoratzen ditut, zirkuluak. Hasi eta
amaitu eta berriro ere hasi egiten diren zikloak,
behin eta berriro errepikatzen diren pausoak. Goiza
eta gaua bezala. Uda eta negua bezala. Etengabe.

Konturatzen bazara, urte honetan gure arteko pausoek ere
forma zirkularra izan dute. Zu udazkenara pasatu zinen nere
udaberria hasten zen momentuan. Zu hemen eta ni han. Orain,
berriz, zure neguko hitzak uda betean jasotzen ditut, eta nire goi-
zetik erantzuten dizut zure gaua denean. Ni hemen eta zu han.

“Ezin izango gara inoiz puntu berberera bueltatu”

Baina beharbada gure teoria zirkularrari zeozer falta zaio.
Urte hasieran BARREnerako idazten hasi gineneko puntu berbe-
retik idazten duzula diozu. Eskenatoki berbera izan daiteke, bai,
baina bi egun berdin-berdin existitzen ez diren bezala, gu ezin
izango gara inoiz bueltatu behin izandako puntu berberera, den-
bora aldatu egiten delako eta gu ere denborarekin batera alda-
tzen garelako.

Bizi izandako momentu bakoitza, gure eguneroko bidaian
jantzita daramatzagun oroitzapenetan bihurtzen da. Bestalde,
bidaiatzeko ez da beharrezkoa lekuz aldatzea. Egutero herri-
tik irten gabe bidaiatu dezakegu, bizitza bera bidaia haundi bat de-
lako.

Badakizu: "Bidaia ez da bidaia, bidaia bidaiaria da".

Urte berri on.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



‘XAMAR’

Juan Carlos Etxegoien

IDAZLE ETA HIZKUNTZALARIA

“Euskararen
herriak
irauteko
kontzientzia
garbia izan du”

Aste honetan bertan amaitu da ‘Xamar’-ek Elgoibarren emandako ikastaroa, euskal kultura tradizionalari buruzkoa, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak antolatuta. Izena eman zuten askok liluratuta jarraitu dute hizkuntzalari nafarrak han esandakoak. Hamar astetan nondik gatozen argitu nahi izan du: gure arbasoen munduaren berri ematean, euskal kulturari buruzko hainbat uste hankaz gora jarri ditu. Bere iritziz, batez ere euskara da euskal kulturaren ezaugarri nagusia, baina baita emakumearen funtzioa ere. Gure kultura ezagutzea oso garrantzitsua dela uste du. ‘Xamar’-ek Euskarari buruzko erreferentziazko liburuak idatzi ditu; ezagunena *Orhipean: gure herria ezagutzen*, gaztelania, frantses eta ingelesera itzulia.

Zer moduz jardun duzu Elgoibarren ikastaroa ematen?

Ni gustura. Ikusirik jendeak interesa duela gure herriko kulturari, gustura egoteko modukoa da.

Ikastaroan parte hartu dutenen harrera zer nolakoa izan da?

Uste dut hogeita hamalau zeudela izena emanik, eta egunero hogeita hamarretik gorra etorri dira ikastarora. Iruditzen zait aski adierazgarria dela datua.

Euskal Kultura tradizionalaz jardun duzu. Berez oso gai zabala denez, gai asko laga behar izan dituzu kanpoan?

Egin duguna hurbilketa bat izan da, kultura oso bat ezin delako laburbildu hogeitaz orduan. Baina pentsatzen dut eman duguna (ene us-tez oinarritzko gaiak) aski dela, ikuspegi aske-konplexurik gabea- eta orokor bat izateko.

Oro har, zer gai aztertu dituzue ikastaroan?

Etxea, bizitza, gizartea alegia, antolatzeko oinarri gisa; folkloreak funtzioak nekazal-gizarte zaharrean; bizitzaren pasarte eritoak familia eta gizarte mailan; sinismen zaharrak eta mitologia; ahozko kulturaren ezaugarriak...

“Herri hau ez da sekula isolaturik izan. Bistan da edozeinek konkistatu gaituela”

Zure iritziz, inguruetakoa kulturekin hartu-eman handia izan dugu euskaldunok. Gure kulturari buruzko hainbat uste hankaz gora jarri dituzu. Ez dugu gure kultura ondo eza-gutzen, ala?

Ez, bistan da. Lau topiko aski ditugu bizitze-ko, zaila baitzen egoera ezohiko bat azaltzea; esan nahi baita, euskara hizkuntza isolatua da eta, gainera, iraun du historiaurretik orain artean. Beraz, azalpen errazena garbi dago: herri isolatua izan da gurea, basatia, konkis-

tatu gabea; horregatik iraun du. Kasik esan-go genuke kasualitatez iraun duela.

Errealitatea, dakigunaren arabera, bestela-koa da. Herri hau ez da sekula isolaturik bizi izan. Afski bistan da edozeinek konkistatu gaituela. Baina, halere, irauteko kontzientzia garbia izan du, bazekielako euskararen herria zela, euskararen jendea. Hori atxikiz, datorre-na datorrela, moldatuko da.

Bistan denez, errealitatea askoz aberatsagoa da topikoa baino.

Erromatarrek zer nolako harremana izan zu-ten Euskal Herriarekin?

Uste genuena baino handiagoa. Dagoeneko, badirudi aski ongi erromanizatutako herria izan zela gurea, baina, modu harrigarrian, ez osoki latinizaturik, bistan denez. Azken ho-geita hamar urte hauetan erromatar hiririk ga-rrantzitsuena aurkitu da, Oiasso, eta ez dago Erriberan edo Araban, Irunen baizik, Euskal Herri berdearen bihotzean baizik.

Antzinako Euskal Herria matriarkala zen?

Matriarkatu hitzarekin ulertzen duzunaren arabera. Garbi dagoena da emakumeek gi-zartean betetzen zituzten funtzioak gizonaren parekoak zirela eta, batzuetan, gainean zeu-dela, bereziki izpirituari zegozkion gaietan. Horregatik, zuberotar ikerle den Anne-Marie Lagardek gizarte tradizionalari buruz ari de-nean *symétrie des sexes* aipatzen du, zego-en parekotasuna azaltzeko.

Noiz kristautu zuten Euskal Herria?

Hori beste eztabaida zahar bat da, baina ba-dirudi, inguruko herriekin konparatuz, beran-duago gertatu zela.

Zergatik izan da etxea elementu garrantzi-tsua euskaldunontzako?

Gizarte antolamenduaren oinarria zelako, al-de batetik, eta, bestetik, etxekoen elkargune ia sakratua, hala biziena, nola hildakoena, le-henagokoen ustez.

Mendez mende gure kulturak gordetako ohi-tura eta usadioek komunitateari zentzua ematen zioten. Oso urte gutxitan usadio pila bat betiko galdu dira eta ohitura berriak har-tu ditugu, bizimodu modemoarenak. Euskal komunitatea orain ez ote dago hankamotz?

Bai, nire ustez, hala da. Komunitate zentzua

elikatzen zuten ohitura eta usadio ugari de-sagertu dira, beste gauzen artean mundu osoan (ez bakarrik hemen) indarrean dagoen sistemak indibidualismoa indartzen duelako, komunitatearen kontra dagoen elementua hain zuzen.

“Emakumeek gizartean betetzen zituzten funtzioak gizonaren parekoak ziren”

Halamoduz bada ere, oraindik euskarari eusten diogu. Esan daiteke euskara dela gure kulturaren ezaugarririk garrantzitsuena?

Dudarik gabe oinarritzkoena, horregatik gara euskararen herria, halaxe definitu zuen gure kulturak bere burua.

Salbatuta dago euskara?

Zalantzarik gabe, aspaldidanik gainera. Aski dituzu hiztegia eta gramatika, hortxe dago euskara gordeta, finkatua, nornahirentzat noiznahi aztergai... hori ez da arazoa. Salba-turik ez dagoena da euskaradun herria, eus-kal komunitatea, bizirik dagokeen komunita-tea.

Zer iritzi duzu Iruña-Veleian gertatutakoaz?

Tamalgaria. Ez dakit noizbait jakingo den iru-zurraren egilea nor izan den. Baina badirudi helburua, askotan bezala, dirua dela.

Zer proiektu daukazu orain esku artean?

Gure kulturaren dibulgazioarekin segitzen dut. Azkena Euskal Herriaren/euskararen historia izan zen. Hurrengoan, beste atal bat oinarri hartuta, gure kulturaren ezagutza za-baltzea da asmoa.

Besterik gehitu nahi duzu?

Egin didazuen harrera beroa eskertzea baizik ez zait gelditzen, bereziki ikastarora etorri di-renena.

Oier Narbaiza

Gabon Zahar Feriako estreinako gazta txapelketan 1.500 euro jasoko ditu irabazleak

Parte hartuko duten gaztagileak aurten saria jasotakoak izango dira

Aurten estreinakoz, Urteko Gazta Txapelduna 2008 lehiaketa antolatuko dute Kalamua elkarteak, Udalaren laguntzaz. Gabon Zahar Feria egunean egingo dute, eta parte hartuko duten gaztagileak aurten Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatuak araututako hamasei ardi-gazta lehiaketarako irabazleak izango dira. Guztira, berderatzi gaztak hartuko dute parte, eta sari bakarra banatuko dute. Hori bai, kopuruz handia: 1.500 euroko saria, txapela eta garaikurra eramango ditu etxera urteko gaztarik onenak.

Elgoibarko ordezkariak ez

Abenduaren 27an egingo dute aurtengo Gabon Zahar Feria, eta lehiaketan parte hartuko dute gaztagileek goizeko hamaika eta erdiak baino lehen aurkeztu beharko dituzte gaztak udaltxean. Ordu horretatik aurrera, ezin izango dute parte hartu. "Pena ematen digu aurten lehenengo bider lehiaketa antolatu eta herriko ordezkariak ez edukitzeak. Ea datorren urtean Mautsi-



txakoek parte hartzeko aukera duten", azaldu dute antolatzaileek.

Afaria ere bai

Baina, gazta txapelketa ez da izango aurtengo berrikuntza bakarra. Abenduaren 20an, zapatuan, Idiazabalgo gazta eta ardoa uztartuko dituen afaria egingo dute Belaustegi jatetxean.

Bost plater eta bost ardo ezberdin edukiko ditu menuak, eta etnologo bat ere egongo da afarian, ardo bakoitza zergatik den egokia azaltzeko. Txartelak 50 euro balio ditu, baina Udalak 10 euro ordainduko dituzenez, afarira joaten direnek 40 eurotan erosi ahal izango dituzte txartelak Kultur Etxean eta Belaustegi jatetxean.

Berdintasunari buruzko hitzaldia izango da hilaren 15ean Kultur Etxean



Luis Cerron



Xabier Odriozola

Udalak antolatuta, gizonezkoen eta berdintasunaren inguruko mahaingurua izango da datorren astelehenean, hilak 15, 19:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Luis Cerron irakasle eta psikopedagogo elgoibartarra, eta Xabier Odriozola antropologoak izango dira hizlariak. *Gizonezkook berdintasunaren aurrean, zer?* izango da gaia, eta galdera hori erantzuten ahaleginduko dira. Odriozolak maskulinitate berriei buruz jardungo du. Bere ustez, gizonezkoa rol zehatz batzuen jabe izan da historikoki, eta jokabide zaharrak alde batera lagatzeko eskatuko du, berriak hartu ahal izateko. Luis Cerronen iritziz, bestalde, ondorengoei zerbait berria pasatzeko, "lehendabizi aldaketa geuk geureganatu behar dugu". Bere ustez, berdintasunik ez dago, eta horregatik sortzen da indarkeria. Gai horiek izango dituzte mintzagai asteleheneko hitzaldian. Moderatzaile lanak Uxue Alberdik egingo ditu.

Izena **Carmelo Urdangarin**



Sigma enpresaren historia jaso du Carmelo Urdangarinek *Estarta y Ecenarro 'Sigma'* liburuan. Enpresaren 80 urteko historia bildu du debarrak; 1914an enpresa sortu zenetik, 1995ean itxi zen arteko iblbidea, hain zuzen ere. Elgoibarko enpresa garrantzitsuenetakoa izan zen Sigma garai hartan, eta enpresak bizi izan zituen etapak azaltzen dira liburuan. Hiru urte eman ditu Carmelok liburua idazten. 167 orrialde ditu, eta 10 euroren truke erosi daiteke liburu-dendetan.

Zenbakia **376**

Metro koadroko 376 litro euri egin du azaroan Elgoibarren, eta bera izan da Gipuzkoan euri gehien jaso duen herrietako bat. Herrialde osoan, oro har, euri asko egin du azken bi hilabeteotan: urriaren 1etik hasita, 70 egunetan, 50 izan dira euritsuak. 1979. urtetik hona, euri gehien egin duen urtea izan da 2008a, eta egoerak horrela jarraitzen badu, 1923. urtetik hona izan den hirugarren urte euritsuena izan daiteke.

Irudia **Kontzezio Azoka**

Eguraldi txarrari aurpegi ona ipini zioten mendaroarak joan zen zapatuan, abenduak 6, Kontzezio Azokan. Euria eta hotza egin arren, jende asko hurbildu zen Mendarora, eta giro polita izan zen. Barazkiak, frutak, ogia, opilak, eztia eta baserriko beste hainbat produktu erosteko aukera izan zen batetik. Bestalde, euskal okela dastatu, taloak jan, sagardoa edan eta abereak ikusteko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek.



'Koloretan' mahai-joko txapelketa urtarilaren 18an

Elgoibarko Izarrak *Koloretan* mahai-jokoaren txapelketa antolatu du San Anton jaietarako. Urtarilaren 18an izango da, goizeko 11:00etan hasita, Kultur Etxeko sotoan. Hiru sari banatuko dira: irabazleak txapela eta 500 euro jasoko ditu; bigarrenak, 300 euro; eta hirugarrenak, 150 euro. Izena emateko azken eguna, urtarilak 12. Informazio gehiago 943 741 626 telefonoan (Imanol). Jokoa Pitxintxun eta Ize liburutegietan, Elgoibarko Izarran eta BARRENEN erosi daiteke



Gaztetxearen Eguna, bihar

Gaztetxearen Eguna izango da bihar, abenduak 13. 11:00etan triki-bertsotoki batean izango da, ondoren jolasak egingo dituzte Plaza Handian, eta eguerdian kantababajana. Tikitak ohiko lekuetan erosi daitezke, bost eurotan. 21:00etatik aurrera, kontzertuak izango dira.

Erreminta-makinaren museoak, hamar urte

Datorren astean erreminta-makinaren museoaren 10. urteurrena ospatuko dute IMHn. Ekitaldi ofiziala hilaren 18an izango da, goizeko 11:00etan. Bertan, museoaren sorreran eta garapenean lagundu dutenei eskerrak emango dizkiete, eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ere parte hartuko du. Bestalde, abenduaren 15etik 17ra museo irekita egongo da, 9:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 19:30era.

Santa Luzia eguna izango da bihar, abenduak 13, jostunen eguna.

Zuk badakizu josten?



Julio Marcos
30 urte, pintorea

Ez gehiegi, baina noizean behin josi izan dut botoiren bat. Bizitza honetan denetik egin behar da, beharrrak erakusten dizu, eta nik etxean ikasi nuen. Ez dut uste jostea emakumeen kontua denik. Hori bai, konponketa handiagoak lagunen batek egiten dizkit.



Pascual Molina
62 urte, jubilatua

Ez. Sekula ez dut ezer josi, ezta botoi bat ere. Gaztetan amak josten zizkidan gauzak, eta gero bikoteak. Hori bai, haria orratzean sartzen lagundu izan diet! Ez dut josteko beharrik eduki inoiz, eta horregatik ez dut ikasi. Bestela josiko nuke.



Manuel Amaro
46 urte, promotorea

Oso gutxi, ezin dut esan jostuna naizenik. Botoiren bat josi izan dut noizbait, beharra neukalako. Ez da zaila botoia jostea: ez dago gaizki egiterik, berak esaten dizu haria nondik joan behar den. Bestela, ez dut josteko beharrik eduki, ez dut gauza askorik josi nire bizitzan.



Begoña Rubio
46 urte, garbitzailea

Ez, oso txarra naiz jostorratz eta hariarekin. Hemen denok jan behar dugu, eta jantziak konpontzeko beharra izaten dudanean, jostunen dendetara eramaten ditut. Hala ere, premiakoa denean, konponketa txiki batzuk egiten badakit, baina ezin esan jostuna naizenik.

ESKERTZA

RICARDO SUAREZ ETXEBERRIA



2008ko abenduaren 4an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

MARI CARMEN IRIONDO UNCILLA



2008ko abenduaren 8an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gure berbak

Aditza (36): Aditz trinkuak: EGON aditza

Pasa dan astian EGON aditza azterzen hasi giñan, eta hala segittuko dogu gaur ere.

Zenbait hiztunen artian DAGOZ, GAOZ eta horrelako formak entzuten dira, baiña Elgoibarko aittitta-amamen artian normalena DAURE eta GAURE formak dira. Dakigun bezela, DAUDE eta GAUDE aditz-formak dira, baiña gure artian R/D txandakatzia askotan gertatzen da (*edo/ero, bide/bire...*), eta arau horregatik ahoskatzen dira horrela: [dawre], [gawre].

Hona hiztun zaharren jardunetik etaratako EGON aditzaren adibide batzuk:

- ♦ *Urruti nagok?*
- ♦ *Mendixan-da lan txarrak badauaz oiñ ere.*
- ♦ *Bageundezen, hiru lagun ziran eurak eta beste bost kriaui, bagenguazen da ...*
- ♦ *Baiña zeñ izan leikien ez naiz konturatzan. Kurutzetakuak honek ez al dira ba ha-men residentzian daozen honek?*

Hauek dira EGON aditzaren lehenaldiko formak:

- ♦ Neutrua: *naguan, zaguan, zauden, zaudeten, zauden.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *najauan, heuan, jauan, gauazen, jauazen.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *najaonan, heuanan, jaonan, gaonazen, jaonazen.*

Naguan eta *zaguan* idatzi dogu, baiña ahoskera normalian -G- bokale arteko hori ez da entzun ere egitten, egixa esan: [nawan], [sauan] ahoskatzen da.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1982

Juanito Gorostizak ekarri digu 1982. urteko erretratu. Urduñara egin zuten irteera egun horretan, Pedro Ezkurak antolatuta. Ordu hartan ohitura handia zeukaten Euskal Herriko inguruneak ezagutzera joateko, eta sarritan egiten zituzten irteerak. Egun polita igaro zutela kontatu digute. Erretratu Urduñako balkoian aterata dago, Nerbioi ibaia jaiotzen den lekuan. Paraje ikusgarria dela esan digute.

Zutik, ezkerretik eskumara: Angel Ezkurra, Luis Oñederra, Bizente Lazkano (†), Santi Ziorraga (†), Lurdes Azkune, Inazio Azpiazu (†), Josefa Astigarraga, Jesusa Kortaberria, Eulogio Arizmendi (†), Aurora Casado, Jose Ramon Ortuoste (†), Maria Uribeberria, Arturo Rivas, Kotsuelo Otaegi, Juanito Gorostiza eta Cruz Agirre.

Behean: Niko Osoro, Petra Arana, Felisa Iriondo, Dorotea Berezibar, Pedro Ezkurra, M^a Luisa Loiola, Pedro Gabilondo, M^a Luisa Arriola eta Alfonso Garai (†).



ESKERTZA

MARIA LUISA MILIKUA ANGIOZAR



2008ko abenduaren 4an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Azaroan...

JAIO TAKOAK



Danel Uriá Tadeo
Azaroak 6
Oskar eta Miryam



Elene Garrido Gabilondo
Azaroak 20
Hector eta Nerea



Nerea Jimenez Alberdi
Azaroak 23
Jesus eta Ainhoa



Nahia Gomez Martinez
Azaroak 8
Agus eta Miriam



Maite eta Miren Gurrutxaga Osoro
Azaroak 19
Jon Aingeru eta Elisabete

Ekain Panizo Aizpurua
Azaroak 9
Mikel eta Olaia

Haitz mazariego Etxeberria
Azaroak 7
Pedro Jabier eta Miren

Olhan Gofil Orozko
Azaroak 11
Jesus eta Birginia

Nora Espilla Etxeberria
Azaroak 17
Roberto eta Maria Elena

Ibai Bartolome Carballo
Azaroak 23
Alejandro eta Sonia

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalite-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

EZKONDUTAKOAK

• Ernesto Garcia eta Ihintz Urkiri • Azaroak 15

HILDAKOAK

- Angel Garate Albizu • 80 urte • Azaroak 12
- Sebastian Jesus Zanfra Gilabe • 59 urte • Azaroak 16
- Aurelio Arenas Arenas • 59 urte • Azaroak 19
- Maria Armendia Izagirre • 89 urte • Azaroak 24
- Luisa Balmaseda Toquero • 95 urte • Azaroak 24

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

I. URTEURRENA

ESTEBAN ARRILLAGA ARRILLAGA

2007ko abenduaren 12an hil zen, 62 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 13, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

"Hamentxe albuari sentitzen zaizkigu"

Pepi eta Xabi



Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA

Folk, reggae eta rocka, punk-rockaren amorrua, funk eta pop-rock koktelera

Danbaka III. Musika Lehiaketako azken txanpa gero eta gertuago dago. Bi kontzertu besterik ez dira falta lehenengo faseari bukaera emateko. Batzuek faboritoak izango dituzte dagoeneko, baina guztiak entzun eta ikusi arte ezin dena esan. Gaur, barixakua, folk-rockak hasiko du gaua. Are gehiago, Ermua-Eibartik datorren Flipin Folk taldean Ni_Neu proiektuko Aitor Sologaitoa musikari dabil, besteak beste. Bigarren Oñati eta Donostia artean osatutako Rock Privado izango da. Pop-rocka egiten dute. Horien ostean, Mutrikutik datorren The Wet Band taldeak funkya eta rock gogorra landuko ditu melodia itsaskorrekin. Eta gaua bukatzeko, Aby-Kem taldeko bateria jotzaile ohiaren talde berria: Turboshit. Metaletik zeharo aldenduta, amorru handiko punk-rocka egiten dute.



Flipin Folk (Ermua-Eibar) Folka eta rocka batzen dituen talde hori 2001ean sortu zuten. Hasieran Galizia eta Irlandako folka rockarekin uztartzen zuten, baina 2005ean egin zuten aldaketatik geroa estilo gehiagotara zabaldu dira: rock, reggae, ska eta beste.



Rock privado (Oñati-Donostia) Gaztelaraz abestutako pop-rocka egiten dute ñabardura askorekin. Donostiako XVII. Pop-Rock lehiaketako epaimahai gaztearen saria jaso zuten eta 2008ko Madrilgo Audiciones lehiaketarako sailkatu ziren.



The wet band (Mutriku) Mutrikun jaio zen 2007. urtean, eta hastapenetan beste taldeen kantuak interpretatzen hasi ziren: bluesa, punka, soula, rocka, hard-rocka eta beste. Gerora, kantu propioak egiteari ekin zioten eta gus-tuko zituzten musika estilok gehiago finkatu zituzten.



Turboshit (Bergara) Hirukote honek aurreko lehenengo aldiz esku hartuko du Danbaka lehiaketan, baina taldeko abeslari eta gitarra jotzailea birritan izan da Espaloiko agertokian eta baten gainera lehiaketa irabazi zuen Aby-Kem taldearekin. Eskarmentudun musikariak dira.

KONTZERTUA

Gaur, barixakua. 22:30. Elgetako Espaloia. 5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

www.danbaka.com

DANBAKA

III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIEN ADURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE
LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



Aurtengo gabonetan ere Estatu Batuetako Gospel talde bat ekarriko dute Herriko Antzokira

Kontzertua datorren barixakuan izango da eta sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte

Orain urtebeteko gospel kontzertuaren arrakasta kontuan hartuta, aurtengo Gabonetarako antzeko beste kontzertu bat antolatu du Kultura Sailak. Abenduaren 19an Kentuckyko talde batek jardungo du Herriko Antzokiko eskenatokian, 22:15etik aurrera. The Northern Kentucky Brotherhood Singers da taldearen izena.

Kantuak *a capella* eskaintzen ditu Kentuckyko taldeak. Abesteko era berezi horrek adin guztietako jendea txunditu du. Estatu Batuetako eta Europako hainbat lekutan jardun du abesten.

Dagoeneko sarrerak salgai daude. Goizez Kultura Sailean eta arratsaldez Gazte informazio Bulegoan eskuratu daitezke, abenduaren 15a baino lehen. Prezioa 8,5 eurokoa da (6 gazte txartelarekin).



Beltzen musika

Gospel musika XVIII. mendean sortu zen Estatu Batuetako hegoaldean, beltzen eliza protestanteetan.

Iazko Gabonetan beste musika talde batek ekarri zituen gospel doinuak Herriko Antzokira, Black Heritage Singers taldeak, eta arrakasta itzela izan zuen.

Bizkaitar batek irabazi du Musika Eskolako kartel lehiaketa



Bizkaiko Sodupe herriko Iratxe Marurik irabazi du Inazio Bereziartua musika eskolako kartel irabazlea. Saria joan zen barixakuan eman zioten.

'Txiki'-ri buruzko filma



Haizea eta sustraiak filmarekin amaituko da Ongarri zine-klubaren abenduko programazioa. Joseba Iñaki Agirre eibartarraren filma Donostiako Zinemaldian estreinatu dute aurren. Francok, 1975eko irailean, beste lau lagunekin batera afusilatutako Jon Paredes Manot *Txiki*-ri buruzko dokumentala hilaren 18an, 21:30ean emango dute, ezker abertzaleak proposatuta. Emanaldiaren ostean tertulia izango da, memoria historikoa sustatzeko Haizea Eta Sustraiak taldeko kideak ere han izango dira-eta.

Gotzon Garateri omenaldia egin zioten Durangon

Durangoko azokan omenaldi beroa egin zioten Gotzon Garate idazleari. Elgoibartarrak egindako lan oparoa erakutsi eta goraipatu zuten Deustuko Unibertsitateko hurbileko lagunek, *Euskararen bidegile* lemapean. Deustuko Unibertsitateak Garatek argitaratu gabeko lanei helduko diela iragarri zuen.

Pilar eta Ikastolaren Gabonetako jaialdiak

Elgoibarko Ikastolak eguenean egingo du Gabonetako jaialdia, abenduaren 18an. Haur txikientzako ekitaldiak 15:00etan hasiko dira. Gurasoentzako deialdia 19:00etan egin dute. Ikastolako jaialdia Herriko Antzokian egingo dute. Bestalde, Pilar ikastetxearen Gabonetako jaialdia egun berean izango da ikastetxean bertan. Pilar ikastetxeak gurasoak eta elgoibartar guztiak gonbidatu ditu.

Bertsoak eta musika garaikidea uztartuko ditu 'Ornitorrinkus' ikuskizunak gaur gauean Kultur Etxeko sotoan

'Abendua Bertsotan' ekimena jarri du martxan Elgoibarko Izarra kultur elkarteak

Kultur Etxeko sotoan musika garaikideaz eta bertsoez gozatzeko aukera izango da gaur, barixakua, 22:00etan. *Ornitorrinkus* saioak bi diziplina horiek uztartuko ditu. Maialen Lujanbio bertsolariak, Judith Monterorekin (saxo-jotzailea) eta Xabi Erkiziarekin (ahotsa, soinua eta zaratak) jardungo du eskenatokian. Sarrerak bost euroko prezioa izango du.

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak *Abendua Bertsotan* egitaraua antolatu du, Gabonetako bertso jaialdiaren 25. urteurrena dela-eta. Gaurko ikuskizuna egitarauko lehen ekitaldia da.

Eguaztenean, abenduaren 17an, Elgoibarko bertsolaritzaren oraina eta etorkizuna aztertuko dute Angel Ugarteburuk, German Meabebasterretxeak eta Uxue Alberdik mahainguru batean, Irati Agirreazaldegik moderatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etatik aurrera.

Bertso afari berezia

Elgoibar bertsotan afari-jaia datorren barixakuan izango da, hila-ren 19an. Sigma jatetxean, bertsozaleekin batera hainbat bertsolari izango dira: Jose *Armaitxa*, Angel Ugarteburu, Uxue Alberdi, Ger-



man Meabebasterretxea, Ziarda, Errazu bertso-eskolakoak... Antolatzaileek sorpresak iragarri dituzte. Afariko txartelak 30 euro balioko du (25 bazkideentzat). Izena emateko Elgoibarko Izarra elkartera jo daiteke (943 741 626).

Gabonetako bertso jaialdia, berriz, abenduaren 26an izango da. Xabier Amuriza, Egaña, Iturriaga, Lujanbio, Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendik jardungo dute Herriko antzokian.

New York Dolls talde mitikoaren telonero izan da Aterkings



Argazkia: Dena Flows

Aterkings taldea New York Dolls banda mitikoaren telonero izan zen joan zen barixakuan, Barakaldoko RockStar aretoan. Kontzertura jende mordoak hurbildu zen, hainbat eta hainbat Elgoibartik. Kontzertua amaitu bezain laster, antolakuntzak berehala hustu zuen aretoa. Aterkingseko kideak penatuta gelditu ziren hara joandako lagunak modu horretan bidali zituztelako.

Antzerki emanaldia izango da gaur, barixakua

Cincuentones antzezlanaren es-kainiko du Julio Perugorria Producciones taldeak gaur, barixakua, Herriko Antzokian, 22:15etan. Berrogeita hamar urteak eginak dituzten hiru gizonezkoren istorioa kontatzen du. Umore klabearen, bizitzako aldaketen berri emango diote ikusleari. Antzezleak Paco Obregon, Janfri Topera eta kke Diaz de Rada dira.

Asteburu honetan egingo da jaiotzen lehiaketa

Jaiotza lehiaketan parte hartze-ko, bihar eman beharko da izena 11:30etik 12:30era parrokiako lokaletan. Hamalau urtetik beherako guztiek parte hartu dezakete. Domekan, berriz, elizako arkupeetan erakutsiko dituzte jaiotzok, 10:30etik aurrera. Sari banaketa 13:00etan egingo da. Erakusketa Zubiaurre-Muruatarren lokalean Errosario kaleko 7an.

IÑAKI LUCAS

Espainiako Eskrima txapelduna

Madriken jokatu zuten azaroaren 28an eskrimako nazioarteko txapelketa, eta Elgoibarko Iñaki Luca-sek lortu zuen maila ertaineko txapela. Lau borroka egin behar izan zituen garaikurra lortzeko, eta argi erakutsi zuen han zeudenen artean teknika maila onena berak zuela.

“Sariari esker
selekzioarekin

European parte hartzeko
aukera daukat”



Espainiako Eskrima txapelduna zara, baina zer da eskrima?

Borroka-arte da, baina makilekin egiten ditugu mugimenduak. Helburua da ezpata moduan erabiltzea makilak: esgrima egitea, baina makilekin. Aurkaria jo behar duzu, eta horretarako babesak erabiltzen ditugu. Baina jakin egin behar da non jo. Azken txapelketan, buruko eta besoetako kolpeak kontatzen zituzten puntuak emateko orduan.

Noiz hasi zinen eskrima egiten?

Orain dela gutxi ekarri dituzte wingsun eta eskrima. Gauza desberdinak dira, baina, era berean, bata bestearekin osagarriak. Eskriman makilekin egiten dituzun mugimenduak eskuekin bakarrik egitea da wingsun borroka-artearen helburua. Espainian nazioarteko txapelketa antolatu duten laugarren aldia izan da aurtien.

Asko entrenatzen zara?

Zaletasun moduan hartzen dut, eta lagunartean entrenatzen dugu. Wingsun/eskrima eskola dago Elgoibarren eta lagun giroan joaten gara. Lana egiten dugunez, lan egunetan bi aldiz joaten gara, eta gero zapatuero ere joaten gara. Domeketan ere bai, batzuetan.

Zer behar da eskrima egiteko?

Teknika da gehien behar dena. Indarra eta mugimendua ere behar dira. Egia esan, denetik edukitzea da komenigarria. Baina, batez ere, praktika behar da.

Mutilak bakarrik aritzen zarete ala neskak ere bai?

Gure klaseetan neskak ere egon izan dira, baina normalean mutilak izaten gara gehien. Borroka-arteetan aritzen diren neskak ezagutzen ditut, baina wingsun eta eskrima egiten dutenak ez; beste modalitate batzuetan aritzen dira.

Espainian berria da arte hori, baina hemendik kanpo ezagutzen dute?

Espainian ez da asko ikusten, baina Alemanian fama handia dauka. Egia esan, hangoak dira, gaur egun eskriman aritzen diren onenak. Baina, hemendik oraindik berria da: urteak daramatzate lantzen, baina oraindik ez du izen handirik hartu, karate eta gainerako borroka-arteetan modukorik.

Karaten gerrikoak ezberdintzen ditu mailak, eskriman, kamisetak.

Mailaren arabera kamisetaren kolorea aldatzen da. Hiru maila orokor daude: oinarritzkoa, ertaina eta altua. Eta bakoitzaren barruan beste maila batzuk daude. Horrela, bada, lehen lau graduatan kamiseta zuria erabiltzen dute. Hortik aurrera, grisa, eta bederatzigarretetik aurrera beltza. Ni bosgarren mailan lehiatzen naiz. Beraz, kamiseta grisa erabiltzen dut. Sariari esker, European aritzeko selekzioan parte hartzeko aukera daukat, baina horretarako gogor egin behar da lana.

Elgoibarko kirol federatuaren urteko sariak banatuko dituzte hilaren 18an

Klubek urtean eginiko lana aintzat hartzea da helburua

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak herrian dauden hamazazpi klubek urtean zehar egiten duten lana aintzat hartzeko asmoarekin, kirol federatuaren urteko sariak antolatu ditu. Hilaren 18an, eguenean, egingo dute sari banaketa.

Modalitate bakoitzeko onenak

Sari horiek urtero Gabonetan banatzen dituzte. Aurten hirugarren aldia da. Sari banaketa Musika Eskolako auditorioan egingo dute hilaren 18an, 19:00etan.

Klub bakoitzak aukeratu beharko du bere kirolean saria jasotzea merezi duen kirolaria. Klubekoa bertakoa, edo



kirol horretan beste klub batean parte hartzen duen edozein kirolari elgoibartar izan daiteke aukeratua.

Horrela, urtero, kirol modalitate bakoitzeko elgoibartar kirolari onenak sarituko dituzte.

Madrilgo kiroldegia bisitatu ditu Udalak

Joan den astebukaeran Udaleko hainbat zinegotzi eta teknikari, Elgoibarko klub batzuren ordezkariekin batera, Madrilan egon ziren, Alconbendas, Mostoles eta San Sebastian de Los Reyes hirietako kirol instalazioak ezagutzeko. Kirol Instalazio horiek estatuko erreferentetzat hartu daitezke, eta bertako zinegotziengandik eta arkitektoengandik jaso zituzten azalpenak elgoibartarrekin. Helburua herriko kirol instalazioen beharrak eta etorkizuneko aukerak aztertzea da.

Hockey txapelketa egingo dute hilaren 29an eta 30ean

Udal Kirol Patronatuak eta Elgoibarko Eskola Kirol Elkartek antolatuta, abenduaren 29an eta 30ean, Aita Agirre Plazan egongo den izotz pistan, Hockey Txapelketa egingo da, benjamin, alebin eta infantil mailetan.

Partidak 10:00etatik 13:00etara jokatu dira, eta parte hartzeko ikasle txetxeetan eman behar da izena, astelehena baino lehen. Talde bakoitzak bost kidez osatuta egon beharko du.

Bestalde, izotz pista hilaren 19tik urtarilaren 12ra arte egongo da zabalik.



EMAITZAK

FUTBOLA

Alaves 1 – Elgoibar 1 (Haundi)

Elgoibar 7 – Eibartarrak B 0 (Jub.)

Elgoibar 0 – Hernani 3 (Kad.)

Urola 0 – Elgoibar 3 (Txik.)

Elgoibar 1 – Soraluze 3 (Neskak f-8)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 4 – Gala Gar 8 (Nazional B)

ESKUBALOA

Arrate 25 – Pneumax 28 (Kad. mut.)

Ikus 22 – Jauja Akillape 18 (Kad. nsk.)

AGENDA

SASKIBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

17:00 Gabi – Katu kale (Sen. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13

12:30 Elgoibar – Lagun Onak (Txik.)

16:30 Haundi – Leioa

Domekia, 14

12:00 Elgoibar – Anaitasuna (Ale.)

16:30 Elgoibar – Aretxabaleta B (1. erreg.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

11:00 Astigarraga Elgo. – Aloña Mendi (Inf.nesk.)

12:30 Bankoa Elgo. – Aloña Mendi (Kd.mt.)

18:30 Alkorta Elg. – Leizaran (Sen. mut.)

Domekak Gipuzkoako arku jaurtiketa txapelketa kiroldegian

Abenduaren 14an, domekan, Olaizaga kiroldegian, Gipuzkoako aretoko arku-tiraketa txapelketa egingo dute Elgoibarko Zarta arkulari kirol elkarteak antolatuta.

Txapelketa goizeko 9:30ean hasiko dute eta goiz guztian zehar arituko dira arkuarekin zelako punteria duten erakusten.

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea, orduka lan egiteko prest, umeak zain-tzen edo garbitzen. Interna egiteko prest.
☎ 669 064 252
- Neska, etxeko lanak edo pertsona nagusiak zaintze-ko prest. Tituluduna. ☎ 696 770 480
- Arratsalde baterako pertsona bat behar dugu bilketa lanak egiteko. ☎ 943 74 73 22
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsalde. ☎ 943 74 32 51
- Emakumea lanerako prest, plantxa egiteko edo etxe-ko lanak egiteko. Goiz edo arratsalde. ☎ 627 799 609
- Mutila lanerako prest, zamaletarako, garbiketa, igeltsaritza edo edozertarako prest. ☎ 660 213 652
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Gauzez edo asteburuetan. ☎ 646 821 678
- Emakume euskalduna, nagusiak zaintzeko prest, es-perimentiarekin. Autoa dauka. ☎ 626 438 248
- Neska gaztea logela baten bila Elgoibarren.
☎ 943 743 505
- Neska euskalduna nagusiak edo umeak zainduko li-tuzke (esperientzia handia), garbiketa lanak egingo li-tuzke.
☎ 676 876 408
- Andre euskaldun batek esperientzia handiarekin zain-duko lituzke pertsona nagusiak. Gauzez edo gauez.
☎ 943 744 433
- Jatezerako sukaldaria behar da. Esperientzia.
☎ 943 741 230

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

- Telefonica parean dagoen garaje itxi bat alokagai da-go. ☎ 943 74 29 31
- Alokagai dagoen pisu baten bila nabil. Elgoibarren.
☎ 696 233 591
- Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ 658 379 393

LOKALAK

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan, itxia edo ire-kia. ☎ 943 741 436

MOTORRA

- Peugeot 307 Diesela 5 ateduna salgai. Egoera one-an. BJT Matrikula. ☎ 605 775 315

BESTELAKOAK

- Egongelako altzariak salgai. Egoera onean.
☎ 696 813 306

ABISUAK

- Erdigunean lau harri urdin eta zuri bat dituen belarri-tako bat galdu da. Ordainsaria egongo da.
☎ 943 741 494

- Joan zen larunbat eguerdian Urbitarten 2an errobe-rentzako patinetea utzi genuen ahaztuta. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko genuke telefono honetara dei-tzea edo udaltzaingoa uztea.

☎ 619 793 653

- Giltza batzuk aurkitu ziren igandean Urasandín, Cris-taleria Elgoibarresa inguruan. Giltzak Udaltzaingoa daude.

- Azaroaren 7an, ostirala, magia ikuskizunaren ondo-ren, norbaitek bere txamarra hartu beharrean, nahi ga-be Ludotekatik beste ume batena hartu zuen. Txama-rak berdinak dira; euritako beltz luzeak eta txanoan ile-arekin. Ludotekan gelditu dena 9-10 tamainakoa da eta eramandakoa 5 tamainakoa. Ludotekan bertan tru-kea egitea edo telefono zenbakira deitzea eskertuko genuke.

☎ 699 843 269 / 943 748 883 (Ludoteka)

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

09

GIDA KOMERTZIALA
2009

lazko gidan zure negozioaren telefonoa agertu ez bazen,

deitu zenbaki honetara:

943 74 37 04

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



I. URTEURRENA

MIGUEL ANGEL MARCOS ANTON

2007ko abenduaren 15ean hil zen, 44 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 20, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





• Zorionak, **Iñigo** gaur hiru urte betetzen dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Irati**, hilaren 9an urte bete egin zenuelako. Familiakoen eta bereziki Anderren eta Gorkaren partez.



• Zorionak, **Ane**, atzo, abenduak 11, bi urtetxo egin zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Narrea**, bost urte egin dituzu! Patxo handi bat familiaren, eta batez ere, Paularen, Juneren eta Mariaren partez.




• Zorionak, **Igor**, bihar urtetxo bat egingo duzulako. Ondo-ondo pasa eguna etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Julen**, hiru urte bete dituzulako. Muxu potolo-potolo bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Elene**, jada urtetxo bat etxeko sorgintxoak. Muxu bat aita, ama eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Gaizka** etxeko guztien partez gaur zazpi urte beteko dituzulako. Muxu handi bat denon partez: bereziki Alaiz eta Miren.



• Zorionak, **Aitor Castro Olano**, abenduaren 15ean bederatzi urte! Izeba Amaia eta osaba Josetxoren partez.



• Zorionak, **Jon** abenduaren 16an zortzi urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna etxeko guztien partez!



• Zorionak **Gorka**, Zapatuan sei urte bete zenituelako muxu asko etxeko guztien partez.



• Tantiaguri, **Carlota**, bihar zortzi urte betetzen dituzu eta gurasoek egun ona pasa dezazula nahi dute. Zorionak, Salento txiki.



• Zorionak, **Maider**, gaur bi urte bete dituzulako. Zure aiton-amona, osaba-izeba eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Printzesa**, gaur sei urte betetzen dituzulako. Muxuak etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Uxue**, asteartearen lau urte bete zenituelako. Muxu handi bat Jon, Nahia eta Saioaren partez.



• Zorionak **Sara eta Danell**, abenduaren hamar eta lau urte betetzen dituztelako. Muxu handi bat familiaren partez eta bereziki Daviden partez.

TXAPELDUNAK!



Azaroaren 29an mus txapelketa jokatu zuten Herri Gain elkartearen, eta Manolo Medrano eta Agel Martin izan ziren txapelak.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguzten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENEko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

OKINDEGIA

14 domeka DOÑA MERCEDES

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 12 Yudego
13 Zabaleta
(*Goizez Etxeberria Santa Ana)
14 Zabaleta
15 Etxeberria (Errosario)
16 Ibañez
17 Garitaonandia
18 Etxeberria (Santa Ana)
19 Fernandez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net



musika

12 barixakua

22:00 'Ornitorinkus'

Elgoibarko Izarrak antolatuta,
musika garaikidea eta
bertsoa uztartuko dituzte
Maialen Lujanbiok eta Xabi
Erkiziak. Kultur Etxeko
sotoan.



erakusketak

15 astelehena

19:00 Argazki erakusketa

Morkaikoren argazki
erakusketa Kultur Etxeko
sotoan. Astelehenetik
barixakura, 19:00etatik
21:00etara.



hitzaldiak

15 astelehena

19:30 Berdintasunari

buruzko hitzaldia

Emakumeen kontrako tratu
txarren gaiari lotuta,
Gizonezkook berdintasuna-
ren aurrean, zer? hitzaldia
emango dute Luis Cerron
eta Xabier Odriozolak. Kultur
Etxeko hitzaldi gelan.

17 eguena

19:00 Bertsolaritzari

buruzko mahaingurua

Elgoibarko Izarrak antolatuta,
Bertsolaritza Elgoibarren:
oraina eta etorkizuna, ma-
haingurua izango da, Kultur
Etxeko hitzaldi gelan.



antzerkia

12 barixakua

22:15 'Cincuentones'

Udalak antolatuta, Herriko
Antzokian.



besteak

13 zapatua

11:00 Gaztetxearen Eguna

Bertso-triki poteoa, jolasak,
bazkaria eta kontzertuak
izango dira. Tikitak ohiko
lekuetan salgai.

14 domeka

9:00 Arku tiraketa

Zarta arkulari taldeak
antolatuta, Gipuzkoako Salako
arku tiraketa txapelketa.
Olaizaga kiroldegian.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 12

Zine-kluba: Fantasia filma 18:00

ZAPATUA 13

Zine-kluba: akzio filma 18:00

DOMEKA 14

Zine-kluba: misterio filma 18:00

MARTITZENA 16

Gabon Zahar feriako eskulanak: 17:00

EGUAZTENA 17

Txoko pribatua: 17:00

EGUENA 18

Ordenagailuak: 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 12

Ludoren eskutitza irakurri 17:30

ZAPATUA 13

Artetira eta Idiazabalgo Gaztaren
museora irteera 10:00

ASTELEHENA 15

Gabon kantak 17:30

MARTITZENA 16

Olentzerori eskutitza idatzi 17:30

EGUAZTENA 17

Ludoteka Gabonetarako apaindu 16:30

EGUENA 18

Futbolin txapelketa 17:30



«High school musical 3»

13, zapatua: 19:00/22:15

14, domeka: 16:30/19:00

15, astelehena: 21:30

AEB, 2008. Zuzendaria: Kenny Orte-

ga. Aktoreak: Zac Efron, Vanessa An-
ne Hudgens, Ashley Tisdale.

115 min.

Institutuko bi ikaslek, Troyk eta Gabrie-

llak, azken urtea dute institutuan. Ko-
media musikal bat antolatuko dute ins-
titutuan, bizi izandakoa eta etorkizune-
rako dituzten kezkek eta itxaropenak
ikuskitzen baten bidez adierazteko.

10:30 Jaiotza lehiaketa
14 urtetik beherakoentzako lehiaketa, parrokiako arkupeetan. Izen ematea, hilaren 13an egin behar da.

11:00 Eskolarteko xake txapelketa
Zubi Ondo elkarteak eta Eskola kiroleko kontseiluak antolatuta, udaletxeko pleno aretoan.

18 eguena
15:30 Pilar ikastetxeko jaialdia
Pilarreko ikasleek Gabonetako jaialdia egingo dute. Pilar Ikastetxean.

19:00 Ikastolako jaialdia
Ikastolako DBHko ikasleen Gabonetako jaialdia Herriko Antzokian. 15:00etan haur txikientzako saioa egingo dute.



Gure gomendioa

Gizonezkook berdintasunaren aurrean, zer?

Abenduak 15, 19:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan Udalak antolatuta, eta emakumeen kontrako tratu txarren aurkako egitarauaren barnean, *Gizonezkook berdintasunaren aurrean, zer?* mahaingurua izango da. Hitzlariak Luis Cerron irakasle eta psikopedagogoia eta Xabier Odriozola antropologoa.



Zerikasi

IKASTAROAK

Parte hartzen ikasten

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2008-12-15 / Bukaera data: 2008-12-22
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu 943 820110 (Debegesa)

Apal betetzailleak eta kutxazainak

Norentzat: Langabetuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-26 / Bukaera data: 2009-02-20
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Enpresa marketing kudeaketa digitala

Norentzat: Lanbiden alta emanda daudenentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2008-01-19 / Bukaera data: 2008-04-03
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Arte eta literatura

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009ko urtarrilean
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu (Pitxintxu dendan)

Planoen interpretazioa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Urtarrilak 15
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Haizea eta sustraiak (Ongarri zine-kluba)»

18, eguena: 21:30

Euskal Herria, 2008.

Zuzendaria: Joseba Iñaki Agirre.

ETAko bi kide eta FRAPeke hiruz; Espainiako Gobernuaren eskutik 1975eko irailaren 27an erailak izan ziren. Gertaera hori gogorarazi nahi izan du

Iñaki Agirrek *Haizea eta Sustraiak* dokumentalean. Txikiren iruditik abiatuz, euskal militantearen senide, lagun eta abokatuen testigantzak biltzen ditu; horien artean, Diego Paredes Manotena (Txikiren anaia) eta Doris Benegas abokatuarena.

herritik kanpo



ione olaizola

Ione Olaizola elgoibartarrak zortzi hilabete daramatza Irlandako Cork hirian. Ingelesa ikastera eta bere bizitza aldaketa bat egiteko joan zen, eta momentuz ez daki noiz bueltatuko den. Gustura dabil kanpoan, baina familiararen, lagunaren eta Elgoibarren falta sentitzen du.

“Jendea denboraldi baterako etortzen da; ondo pasatzeko gogoarekin”



Corkeko gaztelua

Noiztik zaude kanpoan? Eta zenbat denborarako?

Zortzi bat hilabete daramatzat etxetik kanpo eta, egia esan, ez dakit noiz bueltatuko naizen. Neure buruari datarik ipini gabe etorri nintzen.

Zertara joan zinen Irlandara?

Batetik, ingelesa ikastera etorri nintzen, eta, bestetik, aldaketa nahi nuen nire bizimoduan. Beraz, Corkera etorri nintzen. Nahiko hiri handia da, eta lan eskaintza egongo zela pentsatu nuen.

Corken zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

Kanpoko jende asko dago Corken. Jendea denboraldi baterako etortzen da, eta, beraz, ondo pasatzeko gogoarekin. Hori igarri egiten da. Gainera, musikarekiko lotura handia dute, eta horrek asko alaitzen du. Bestalde, momentuz gutxien gustatu zaidana hemengo uda izan da: neguan eta udan bizimodu bera egiten da hemen.

Elgoibarren falta sentitzen duzu?

Noski, etxekoan, lagunaren eta herriaren falta sentitzen da. Euskaraz hitz egitearen falta ere sentitzen dut; eta Euskal Herriko paisaia ere bai.

Zelako bizimodua egiten duzu hor?

Egunero lanera joaten naiz, eta asteburuak era batera edo bestera aprobetxatzen saiatzen naiz: lagunekin edo etxeko bizilagunekin egoteko, adibidez.

Zer daukazu hor Elgoibarren ez duzunik? Eta alderantziz?

Cork hiri handiagoa da Elgoibar baino. Beraz eskaintza handiagoa dago aisialdirako eta lanerako zerbitzu aldetik ere bai, besteak beste. Baina Euskal Herrian klima hobea daukagu, mendiak, hondartzak eta janaria, eta osasun zerbitzua ere hobea da. Azken finean bizitza kalitatea hobea da.

Bueltatzeko asmorik ba al duzu?

Bai, bueltatzeko asmoa daukat, baina oraindik ez dakit noiz. Momentuz gustura nago hemen.



607 468 014

ITURRI TABERNA - ARDANDEGIA

Bodegako prezioak, ezin hobeak!

Anna Codorniu	6,95 €
Cresta Rosa	3,15 €
Rioja erreserva.....	5,00 €
Viña Albina erreserva.....	7,95 €
Txakoli Txomin Etxaniz	6,50 €

Ardo gehiago gure ardandegia berrian!



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Blak dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Desigual

San Inazio, 5 behea
☎ 943 748 925
☎ 677 846 069
Faxa: 943 531 502
pinturasdesigual@hotmail.es

San Anton jaietako

KOLORETAN MAHAI-JOKO TXAPELKETA

Elgoibarko partxis-tribiala



Urtarrilak 18, domeka

Goizeko 11:00etan

Kultur Etxeko sotoan

**Erosi mahai-jokoa
eta hasi entrenatzen!!!**

SARIAK :

1. saria: Txapela eta 500 €
2. saria: 300 €
3. saria: 150 €

- 18 urtetik gorakoentzat
- Bakarka edo bikoteka har daiteke parte

Izena emateko: Ubitarte 4, behea / 943 74 16 26 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com
(azken eguna: urtarrilak 12)

Antolatzailea:



Babeslea:



Elgoibarko Udala
Kultura Salla